



INMIGRAZIO IRAUNKOR ETA IGAROKORREN ALDEAK

J. A. LOIDI BIZCARRONDO

Azkenaldi hontan hainbestekoa izan ez bada ere, joan diren berrogeitamar urte hoetan, Errenteria-runtz izan den jende etorrera, inmigrazioa, ikaragarria izan da.

Etorri direnak, gehienak, ez dira euskaldun izan. Nik ez dut esan nahi honekin, gu baino txarragoak edo obeagoak direnik, baizik eta, inork uka ezin dezakeen hori: gehienak ez direla euskaldun izan.

Eta, jakina, jende hori etorrialdea, bertan, gure herrian, irauten zuen euskal-joera, euskalduntasuna, ahultzen joan da. Hauxe bera gertatu izan da hainbeste eta hainbeste herrietan.

Hau guzia denok ongi dakizuten gauza da: guzien begiurrean dagoen gauza da-ta. Ez dut, beraz, hontaz ezer argitu beharrik.

Baina, errenteriarra izan, eta aspaldi xamarrean Irunen bizi izanik, bi herri ia auzoko diren (Oiartzun tarteko) hoen joerai begigatu izan diet. Eta, inmigrazioak, edo obeto esan, datorren jendeak, edo obeto oraindik, datorren jendearen "asmoak" dakarzkiten aldaketen berri eman nahi nuke.

Ez dakit gertakizun hau ezagun den ala ez. Nik nabaritu dedana bakarrik esangu dut.

Datozenen "asmoak" era askotakoak eta batabestearengandik oso ezberdinak izango dira noski, baina, orain, garrantzi haundiko bi elkar-contrako "asmo" aztertuko ditut.

- a) Batzuek, etorri, eta hemen bertan betiko geratzeko "asmotan" datoz.
- b) Besteak, etorri, eta ahal den bezin agudo alde egiteko "asmotan" datoz.

Jakina da, askok ez dakarrela hontaz asmo sendorik: hemen dijoakion eran erabakiko du azkenean eta kito. Baina, beste askok, berak ia ohartu gabe izanarren ere, bada-karte beren barruan bi joera hoitako baten sustraia.

Egin dezagun kontu, badatorrela sendi bat. Senarrari hemengo (hemen dagoen, hemendik aldentuko ez den) lan-tegi batean lana eman ematen diotela. Eta lan hori bere

gogokoa dela. Bere etxea, bere bizi-lekua ere, erosi du. Lan-tegian, herriko jendeen artean, adizkideak egin ditu. Bere emazteak eta seme-alabak ere, bilatu dituzte beren lagunak... Hitz batez, herrian oinarritu da, herrikoekin kidetzen joan da, antzeturten, berdintzen, eta... hemen geratzen da betiko.

Bestalde, egin dezagun kontu, badatorrela beste sendi bat. Senarra karabinerua, edo trenbideko langile, edo estaduko edo hemengo ez den lantegi batek hemen duen "etxe-ordeko" batean lan egiten duena dela. Hemen "kabua" baldin bada, irrikitzen egongo da noiz igoko dioten "sargento" izatera eta noiz emango dioten beste nonbaiteko aginte berri bat. Hemen geltokiko "faktore" bada, irrikitzen egongo da noiz izendatzen duten nonbaiteko geltokiko buru. Hemen "etxe-ordeko" lantegi hortan "txupatinta" huts bat baldin bada, irrikitzen egongo da, kanpoko "etxe-nagusian" edo beste "etxe-ordeko" batean, noiz zerbaiten edo norbaiten buru egiten duten. Gure herriak ez diote ajolik. Ez dute etxebizitzarik erosten (askori, egon bitarterako bat, eskuratzen diote; besteak, zertako erosi, berehala saldu beharko badute?). Ez dute bertako adizkiderik egiteko gogorik. Berak bezala, hanka bat hemen eta bestea hor nonbait daukatenak, dituzte lagun. Eta, jakina, urte bat, bi, hiru, bost igaroko dira, baina, egunen batean, inon zabaldu, inon sustraitu eta inon itsatsi ez diren erro askorik, urratu beharrik izan gabe... alde egingo dute.

Orain ez da asko nabarmentzen, baina urte batzuek lehen, bi joera hoen aldea, nabarmen zen Erreterria eta Irun-en artean.

Erreterria-ra etorri ziren gehienak "geratzera" etorri ziren. Eta, geratu ere, geratu ziren. Eta, egonean-egonean euskal-kutsua hartzen joan ziren. Kanean bertan ezagun izaten ziren (panazko galtzak, txapelak, eta abar) etorri berriak. Eta, bestalde, denok ezagutu izan ditugu, hoen artean, urteen buruan, euskaltzale amorratu egin zirenak.

Irun-er berriz, karabinerua ehundaka; guardiazibilak berdin; aduanak "bistak" eta "komisionistak" eta abar, ehundaka; trenbideko langileak, milatik gora; militarrek, nik ez dakit zenbat... Bi milatik gora sendi ditugu orain bertan —gaur hemen eta bihar Jainkoak daki non—, nola edo hala, beti alde egiteko prest daudenak.

Bi jokaera ezberdin hoen ondorea erraz da ikusten.

Egin dezagun kontu (kontu oso arinean noski!), Erreterriak 10.000 biztanle zituela halako urte batean. Eta urtero urtero 1.000 kanpotar datozela, baina, urtero urtero, beren joera hamarretik bat "euskalduntzen" dela (hitz hau ahalik eta esan-nahi zabalenean harturik). Hontaz, hamar urteren buruan, honela izango genituzke:

	euskaldun	erdaldun
bertakoak	10.000	
urte bat daramatenak ...	100	900
2 urte daramatenak ...	200	800
3 urte daramatenak ...	300	700
4 urte daramatenak ...	400	600
5 urte daramatenak ...	500	500
6 urte daramatenak ...	600	400
7 urte daramatenak ...	700	300
8 urte daramatenak ...	800	200
9 urte daramatenak ...	900	100
10 urte daramatenak ...	1.000	
Guzira	15.500 (% 77,5)	4.500 (% 22,5)

Irun-en berriz, kanpotarrak, joan-etorrian, urtero berri-tzen joan direnez gero, hamar urteren buruan, honela izango genituzke:

	euskaldun	erdaldun
bertakoak	10.000	
kanpotarrak (denak etorri berriak) ..		10.000
Guzira	10.000 (% 50)	10.000 (% 50)

Egia esan, ez dira gauzak horren ximpleki eta honelako neurri xelebrea gertatzen, baina, dena dela, euskalduntasunaren aldetik, agirian dago bata-bestearen alderdia.

Hemen, Irun-en, askotan esan izan didate, "bai, Irun-en euskalduntasuna asko galdu da, kanpoko jende asko etorri delako". Nik esaten nien Erreterria-ra eta beste herri asko-tara ere, Irun-era hainbat edo gehiago kanpotar etorri direla, baina, ez dutela herri hoiak beren euskalduntasuna neurri berean galdu.

Irun aspaldi hasi zen bere euskalduntasuna galtzen. Kondairagile askok aitortu dute hau. Aspaldiko urte haietan ez zen orain aitatu dedan fenomeno honengatik izan, baina, urte askoren buruan (trenbidea 1863garren urtean zabaldu zenezkeroztik eta mugak, 1841garren urtean, muga-etxeak, beren zaindariak eta hoek guziak dakarzten hartu-emanak eta irabazbideak, Irun-go herriaz nagusitu zirenezkeroztik, fenomeno honek eraginazi du, Irun-ek, Erreterria-k baino gehiago galdu izatea bere euskal arima.

Baina, ez da errua kanpotarrei bakarrik bota behar. Bada bi herri hoen giroa bereizten duen beste zerbait: bertako-koen joera.

Erreterriarrak, ez dakit beren ziborriari begira egoten diren (edo geran), baina, bere herriko gauzetan dute jarria beren asmoa eta elburua, beren xedea eta gogoia, beren burubide eta eginkizunak... Eta, gero, bere auzoetara dijoaz: Oiartzun, Lezo, Pasai, Astigarraga. Gero Gipuzkoa osoa. Gehienak dakite Aretxabaleta, esate baterako, Gipuzkoa-ko herri bat dela, eta Ondarroa Bizkai-koa. Irundarrak ere, beren ziborriari begiratzen diote (edo diogu): San Martzial-eko mendia eta "alardea", Ama Xantalen-en elizatxo, futboleko "Real Unión" delakoa, Bidasoa-ko izokiak, Faisane-ko ugarte... Baina, hortik kanpo... Madrid eta Paris eta... jakina, bion arteko muga. Hortik bizi izaki asko...

Gipuzkoa nondik norainokoa den ez dut uste irundar askok dakienik. Ezagutzen ditut, urteetan eta urteetan (askotan gero!), egunero eta egunero, Irun-dik Donostia-rako bidea egin behar izan dutenak, eta... sekula santan, ikustera bederen, Erreterria-n inoiz ere geratu ez direnak. Zer arrazoi ikusteko?, esango dute noski. Egia esan, Erreterria-k, zerbait bai, baina, Venezia-k edo Viena-k edo Paris-ek hainbateko ikusgarri politik ez du, baina... tira!, polita izan behar al du maite ahal izateko?

Guzi honen laburpen bezala, hauxe esan genezake: Erreterria-n eta Irun-en gertatu denak, bolabait ere adierazten digutela, herri baten ondoreako, datozenen eta bertako-koen "asmoak" duten indarra.